



# culture 21

Kulturaren Agenda 21



**EKINTZAK**

# Kultura 21:Ekintzak

Kulturak hiri iraunkorretan duen zereginaren inguruko konpromisoak



2015eko martxoaren 18tik 20ra bitartean Bilbon bildu dira mundu osoko hirietako eta tokiko gobernuetako ordezkariak, *Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuetako* munduko erakundeak deituta Kultura Gailurrerako; bada, ordezkari horiek “**Kultura 21: Ekintzak**” agiria onartu dute:



EKINTZAK

- »» **Herritarren, kulturaren eta garapen iraunkorraren arteko loturaren osotasuna sustatzea.**
- »» **Nazioarteko esparru bat eskaintzea, gauzatu eta neurtu daitezkeen konpromiso eta ekintzetan oinarritua.**
- »» **Kulturaren Agenda 21 osatzea (2004), eraginkorragoa izan dadin.**
- »» **Hiri eta tokiko gobernuek biztanleekin eta biztanleentzako politikak antolatzeko eta ezartzeko instantzia gisa duten zeregina indartzea.**
- »» **Garapen Iraunkorreko Post 2015 Agenda zehazten laguntzea eta kulturak agenda horretan duen funtsezko zeregina nabarmentzea.**



# Sarrera

XXI. mendea hasi dugun honetan, garapena ezingo da “iraunkortzat” hartu baldin eta faktore kulturalen garrantzia aintzat hartzen ez bada. Giza garapena askatasunak eta ahalmenak zabaltzeko prozesu bat da, eta gu gara protagonista, Lurrean bizi garen pertsona guztiak. Horregatik, prozesu hori iraunkor bihurtuko dabaldin eta hurrengo belaunaldien eskubide eta askatasunak errespetatzen baditugu. Giza garapena eraginkorra izan daiteke, soilik, kultura eta kulturarekin zerikusia duten faktoreak, hala nola oroimena, sormena, aniztasuna eta jakintza, besteak beste, berariaz aintzat hartzen baditu.

XXI. mendea kultura-aniztasunaren mendea da. Gizakiek harreman dinamiko eta interaktiboa dute haien ingurunearekin, munduko txoko guztietan. Gaur egun, kultura guztiek agente izan nahi dute prozesu horietan, eta ekarpenak egin nahi dituzte, modu originalean, giza eskubideen eta iraunkortasunaren alorretan, esate batera. Kultura guztiak dira munduko aberastasunaren parte, eta kultura guztiek elkarri eragiten diote, gizateria solidarioagoa izan dadin, elkarrekikotasuna eta elkarren arteko errespetua eta konfiantza oinarri hartuta.

Garapen iraunkorrek tokian du eragina eta herritarrek parte hartzeko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko leku eta prozesuak behar ditu. Alde horretatik, tokiko gobernuak eztabaida demokratikoa modu aktiboan bultzatzeko maila pribilegiatuan daude. Tokiko gobernuek lekuak antolatu eta prozesuak sustatu ditzakete, herritarrek haien eskubideak baliatu ditzaten, dauzkaten gaitasunak areagotu ditzaten, orainaldiko protagonista izan daitezen eta etorkizuna erabaki dezaten.

Mundua ulertzeko eta aldatzeko ezinbestekoa da garapen iraunkorraren ardatz diren esparruetan oinarri edo arlo kulturala sartzea, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen arloak bezalaxe, modu esplizitu, eraginkor eta dinamikoan. Horixe dio *Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuek* 2010ean Mexikon onartu zuten Orientazio Politikoaren Adierazpenak.



# “KULTURA 21: EKINTZAK”





» **“Kultura 21: Ekintzak”** dokumentuaren bidez, Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuek herritarrak, kultura eta garapen iraunkorra estuki lotzeko konpromisoa berritu dute.

» **“Kultura 21: Ekintzak”** dokumentua Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuek 2004an onartutako kulturaren Agenda 21 osatzera dator. Izan ere, “kulturari buruzko politika publikoak bideratzeko dokumentu eta gizateriaren garapen kulturalerako ekarpen gisa” egindako Agenda 21 funtsezko eta garrantzizko testua da oraindik ere.

» **“Kultura 21: Ekintzak”** dokumentuak aintzat hartzen ditu azken hamarkadako aldaketa kultural garrantzitsuak, gaur egungo politikak antolatzerakoan islatu beharra daudelako, eta kulturaren Agenda 21ean ardatz diren gaiak zehaztu eta konpromiso eta ekintzen bidez gauzatzen ditu. “Kultura 21: Ekintzak” dokumentuak mundu guztian aplikatzeko tresna izan nahi du, eta tresna horren bitartez jakintza erraztea, jardunbide egokiak trukitzea eta gai horretan arduraz jokatzeko duten eta aitzindari diren hiri eta tokiko gobernuen sare globala sendotzea.



# BALIOAK

Balio horien oinarriak dira, batetik, hirien eta tokiko gobernuen esperientzia praktiko eta zehatzak; eta bestetik, nazioarteko erakundeen, unibertsitateen eta aktibismoaren ekarpenak. Balioek tokiko gobernuak kultura tokiko eta munduko garapen iraunkorrean txertatzeko dituzten uste sendoak eta asmoak laburbiltzen dituzte.

## Kultura, eskubideak eta herritarrak

1. Kultura osatzen dute pertsona batek, bakarka edo kolektiboki, haren gizatasuna eta bizitzari eta garapenari ematen dien zentzua adierazteko baliatzen dituen balio, sinesmen, hizkuntza, ezaupide, arte eta jakintzek.
2. Kultura guztien ondasun bat da, pertsona bakoitzak bere etorkizuna eraikitzeko daukan ahalmena areagotzen duena. Pertsona guztiek dute eta sortzen dute kultura. Kultura errealitatea ulertzeko, interpretatzeko eta aldatzeko bidea ematen duen prozesu bat da.
3. Eskubide kulturalak giza eskubideen parte dira. Inork ezin du kultura-aniztasuna arrazoitzat hartu nazioarteko zuzenbideak ziurtatzen dituen eskubideak urratzeko, ezta haien helmena mugatzeko ere. Gizabanakoen eta erkidegoen askatasun kulturalak dinamika demokratikoen funtsezko baldintza ez ezik, haien emaitza ere badira.
4. Eskubide kulturalak ziurtatzen dute pertsona guztiek haien identifikazio-prozesua bizitza osoan askatasunez bizitzeko behar dituzten baliabide kulturalak eskuratzeko ahalmena izatea, baita dauden kulturetan parte hartzeko eta modu berriak asmatzeko ahalmena izatea ere. Herritartasun kulturalak eskubideak, askatasunak eta erantzukizunak dakartza berekin. Bizitza osoan unibertso kultural eta sinbolikoa eskura edukitzea eta unibertso horretan parte hartu ahal izatea funtsezkoa da sentsibilitate, hautaketa, adierazpen eta jarrera kritikorako gaitasunak garatzeko; izan ere, gaitasun horiek ezinbestekoak dira elkarrekintza atsegina izateko, herritartasuna eraikitzeko eta gure gizartean bakea ziurtatzeko.

5. Demokrazia kulturala oinarrizkoa da herritarrak aktiboak izan daitezen; demokrazia kulturalak, gainera, parte-hartzea eta elkarrizketa sustatzen ditu. Horregatik, nahitaezko baldintza da inork, gailentasun, bikaintasun edo unibertsaltasun irizpideak argudiatuz, kultura bat ordezkatzeko edo deuseztatzeko eskubidea beretzat har ez dezan. Horrek ez du esan nahi, ordea, demokrazia kulturala eztabaida- eta tentsio-iturri ezinizan daitekeenik. Alde horretatik, giza eskubide unibertsalak errespetatu behar dira, beti.

### Garapen iraunkorraren faktore kulturalak

6. Garapena iraunkorra izan dadin, elkarri lotuta dauden faktore batzuk konbinatu behar dira (kulturalak, ingurumenaren arlokoak, sozialak eta ekonomikoak). Horren harian, garrantzitsua da arlo bakoitzean politika espezifikoak garatzea; arlo horiek, gainera, zeharkakoak izan behar dute eta elkarren artean lotu behar dira.
7. Kultura-aniztasuna da gizateriaren ondare nagusia. Milaka urteko historiaren emaitza da, herri guztiek hizkuntzaren, ideien, tekniken, jardunbideen eta sorkuntzen bitartez egin dituzten ekarpen kolektiboen fruitua. Aniztasunak askotariko dimentsioak dauzka, pertsona guztien nortasunaren parte da eta ez da alteritatean bakarrik biltzen. Kultura-aniztasunak nortasunak eta desberdintasunak etengabe birdefinitzeko aukera ematen du, eta bizikidetzaren, herritartasunaren eta gizartearen eraikuntza baketsuaren funtsezko osagai bat da.
8. Ondare kulturala eta dauzkan dimentsio guztiak (oroimena eta paisaia, esate batera), giza sormenaren lekuko dira, baita pertsonen eta herrien nortasuna garatzeko baliabideak ere. Gauza bizia da, etengabe bilakatzen da eta gizartearen bizimoduan era dinamikoan txertatu beharko litzateke.
9. Lurraldea gizarte-eraikuntza bat da, giza taldeek naturaz jabetzeko eta ingurunea eraldatzeko prozesuan izan duten elkarrekintza historikoaren fruitua. Lurraldeak han bizi den jendearen historia, nortasuna eta balioak islatzen ditu. Lurraldeari ikuspegi kulturaletik begira diezaiokegu, ikuspegi hori ezinbestekoa baita biztanleen bizi-kalitatea egokia izan dadin. Lurralde-antolamendua eta hiri-plangintzajarduera kulturalak dira, natura- eta kultura-baliabideak aintzatesten, inbentariatzen, balioztatzen eta gizartearen etorkizuneko helburuekin bateratzen dituztelako.
10. Ondasun eta zerbitzu kulturalak ez dira merkantzia arruntak, zentzua, esanahia eta nortasuna dutelako. Artistek eta erakunde eta instituzio kulturalak funtsezko zeregina dute hiri iraunkorren garapenean. Kulturaren eta adierazpen kulturalen balio ekonomikoa bakarrik aintzat hartuz gero, kulturak denen ondasun izateari uzten dio eta, ondorioz, kulturak ingurua aldatzeko daukan ahalmena murriztu egiten da. Ekonomiak bizitzako aukerak baldintzatzen dituen balio batzuk zabaltzen ditu eta kulturak balio horiek zalantzan jar ditzake. XXI. mendeko eredu ekonomikoek ekonomia publiko, pribatu eta zibila (irabazi-asmorik gabekoa) modu koherenteagoan antolatzea aukera eman behar dute eta pertsonen duintasuna, gizarte-zuzentasuna eta ingurumena errespetatzen direla ziurtatu behar dute.
11. Informazioa eskuratzea eta denentzako jakintza bihurtzea, bizitza osoan hezkuntza jasotzeko eskubidea eta bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea elkarren mendekoak dira.
12. Desabantailak dituzten, isolatuta dauden edo behartsuak diren pertsonak egoera hori gainditzeko eta haien gizarteratzearen eragile izateko erabakigarria da zerbitzu kulturalak eskura izatea eta prozesu kulturaletan modu aktiboan parte hartzea.

13. Kalitatezko informazio-sistema interaktiboen bitartez parte hartzea oinarritzkoa da garapen iraunkorrerako. Gobernantzak, egokia izan dadin, ziurtatu behar ditu, batetik, gardentasuna; eta bestetik, herritar guztiek informazio fidagarria sortzeko, jasotzeko, bilatzeko eta eskualdatzeko daukaten eskubidea.
14. Kultura garatzeko, ekosistema kulturalako agente guztiek parte hartu behar dute, elkarlanean eta berrikuntza sustatzea helburu hartuta; agente horiek dira, hain zuzen ere, erakunde publiko eta pribatuak eta gizarte zibileko erakundeak.
15. Pertsonen kultura-jarduerak ez dira eremu fisikoetan bakarrik gauzatzen, baita mundu digitalean ere, eta mundu digitaleko adierazpen horiek eremu publikoaren parte dira. Beraz, bi eremuak publikoak izan daitezten eta aukera egokiak eskain ditzaten ziurtatu behar da.

### Tokiko gobernuen erantzukizun bereziak

16. Tokiko gobernuak lehen mailako agenteak dira eskubide kulturalak oinarriko giza eskubide gisa defenditzeari eta sustatzeari dagokionez. Hurbileko demokraziaren bidez, herritarrek erabaki publikoetan parte hartzea ziurtatzen dute, batetik; eta nazioko eta nazioarteko agenteekin elkarrizketan aritzea sustatzen dute, bestetik.
17. Tokiko gobernuak agente anitzeko gobernantza-esparruak aplikatzen dituzte (gizarte zibilarekin eta sektore pribatuarekin elkarrizketan arituz), gobernantza transbertsal edo horizontaleko moldeak garatzen dituzte (dimentsio kulturala aintzat hartzen dute politika publiko guztietan) eta maila anitzeko edo goitik beherako gobernantza-esparruak eskatzen dituzte (beste gobernu-maila batzuekin).
18. Tokiko gobernuak politika publikoen sorkuntzan, aplikazioan eta ebaluazioan esku hartzen duten pertsona guztiek parte hartzea sustatzen dute (politika horietan kultura-arlokoak ere sartzen dira), eta demokrazia kulturala gauzatzea errazten dute.
19. Tokiko gobernuak dagokie lurralde-oreka ziurtatzea: erdigunearen eta kanpoaldearen artekoa (hiri barruan) eta hirien eta landa-eremuen artekoa. Alde horretatik, herri eta erkidego indigenen lurraldeei garrantzi handia eman behar zaie.
20. Tokiko gobernuak oinarritzko agenteak dira nazioarteko prozesuetan, herritarren ahotsa nazioartera heltzea ziurtatzen dutelako. Tokiko gobernuak, batetik, tokiko diplomazia sustatzen dute, maiz ekintza kulturalen bitartez; bestetik, kultura-arloko nazioarteko lankidetzaprozesuetan parte hartzen dute, lankidetzaren nahiaezko tresna baita giza erkidegoa solidarioa izan dadin; eta azkenik, nazioarteko lankidetzaren ekimenetan gutxien garatuta dauden eskualdeetako egoera bereziak hartzen dituzte aintzat.
21. Tokiko gobernuak herritartasun demokratikoa eta bakearen kultura bultzatzen dituzte, indarkeriarik eza eta hiriko barne- eta kanpo-gatazkak modu baketsuan konpontzea sustatuz. Tokiko gobernuak elkarrekin lan egiten dute, sarean; jardunbideak eta esperientziak trukatzeko eta ekintzak koordinatzen dituzte. Tokiko gobernuak arazo globalen arabera moldatutako konponbide arrakastatsuek esperimendatzeko aukera ematen duten laborategiak dira.



# KONPROMISOAK

Kulturaren Agenda 21 (2004) izan zen kulturaren, herritarren eta iraunkortasunaren arteko loturaren garrantzia modu sistematikoan jorratu zuen nazioarteko lehen dokumentua. Ordudanik, azken hamarkadan, tokiko gobernu askok (hiri, metropoli, eskualde, probintzia, sail eta konderriek), gizarte zibileko agenteek, agentzia eta ministerio nazionalak eta nazioarteko erakundeek kulturaren Agenda 21 kontuan hartu dute politikak eta programak antolatzeko. Kulturaren Agenda 21en web-orrian horien guztien zerrenda dago.

Kulturaren Agenda 21ekin lotura duten erakunde askok gida praktiko bat eskatu dute, agenda tokian aplikatzea, esperientziak nazioartean trukatzeko eta "lan-talde" ikusgarriago eta egituratuago bat antolatzea errazteko. Hori, Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuen Kultura Batzordeak gauzatutako lanak ebaluatze aldera egindako galdeketa baten arabera; galdeketa emaitzak 2014ko irailean argitaratu zituzten. Konpromiso hauen helburua premia horri erantzutea da. Konpromisoak zehatzak dira eta gauzatu eta neurtzeko moduko nazioarteko orientazio eta estandarrak sustatzen dituzte.

XXI. mendean gero eta gehiagok onartu dute kultura iraunkortasunaren parte dela: nazioarteko erakundeek, estatuko eta tokiko gobernuek, gizarte zibileko agenteek, adituek eta gainerako interesdunek txosten, adierazpen eta konpromiso ugari egin dituzte. Garrantzitsuenak dira, besteak beste, UNESCOren biltzarrak, Nazio Batuen Garapenerako Programaren (NBGP) txostenak, Nazio Batuen Kultura Eskubideen arloko kontalariaren lanak, Tokiko eta Eskualdeko Gobernuen Global Taskforce delakoaren konpromisoak, Garapen Iraunkorreko post-2015 Helburuen zirriborroak eta global #culture2015goal kanpaina.

Ekarpen horietan guztietan ikusten da gaur egungo iraunkortasunaren inguruko ikusmoldean faktore kultural, ekologiko, sozial eta ekonomiko ugari hartzen direla aintzat eta faktore horiek guztiak elkarri estuki lotuta daudela. Aitortu beharra dago politiken diseinua, ezarpena eta ebaluazioa elkarren mendeko prozesuak direla, ez direla agintari publikoen eskumenak bakarrik, baita hainbat solaskideren arteko sinergia eta elkarlanen emaitzak ere.

#### **Konpromisoak bederatzi atal hauen arabera daude egituratuta:**

- 1. Kultura-eskubideak.**
- 2. Ondarea, aniztasuna eta sormena.**
- 3. Kultura eta hezkuntza.**
- 4. Kultura eta ingurumena.**
- 5. Kultura eta ekonomia.**
- 6. Kultura, zuzentasuna eta gizarteratzea.**
- 7. Kultura, hiri-plangintza eta eremu publikoa.**
- 8. Kultura, informazioa eta jakintza.**
- 9. Kulturaren gobernantza.**

Datozen ataletan arlo publikoaren ikusmolde berri bat azalduko dugu, estatuaren (gure kasuan, tokiko gobernuen) eta gizarteko agenteen arteko "konpromisoen" ideian oinarritua. Bederatzi konpromiso horietan hiri iraunkorren arlo kulturala dago laburbildua. Konpromiso bakoitzak bere ekintzak dauzka, kulturaren Agenda 21 gauzatzen duten tokiko gobernuen lana bideratzeko, agenda zenbateraino betetzen den ebaluatzeko eta politika eta estrategia publikoak hobeto ezartzea errazteko.







# Kultura-eskubideak

## Herritar aktiboak eta kultura-eskubideen erabateko aintzatespena

Giza eskubideak gizaki guztien askatasunaren eta eskubideen adierazgarri dira, baita politiken koherentziaren eta legezkoatasunaren oinarriak eta bermeak ere. Kultura-eskubideak dira, zehazki, pertsona guztiok adierazpenak libreki egiteko, ondareak, balioak eta nortasunak eskuratzeko eta bizitza kulturean modu aktiboan parte hartzeko dauzkagun eskubideak. Kultura-eskubideak giza eskubideen parte dira eta beste eskubide, askatasun eta erantzukizun batzuk gauzatzeko behar diren ezaupideak eskuratzeko ziurtatzen dute.

Kultura-eskubideak ez datoz bat kultura edo nortasuna izozten dituzten eta analisi historikoa aintzat hartzen ez duten eta askatasuna mugatzen duten adierazpen sinplifikatzaile eta populista huts bihurtzen dituzten kontakizunekin. Nortasun zehatzak erkidegoaren existentzia arautzen duen aurrealdintza izateari utzi dio eta, gaur egun, nortasuna eraikitzea proiektu kolektiboaren funtsezko faktore bihurtu da; hasteko, nortasuna helburu negoziagarria da.

Gauzak horrela, kultura-eskubideek ziurtatzen dute jendea kultura-erkidego batekin edo gehiagorekin bat etorri ahal izatea, baita bizitzan aukera hori aldatu ahal izatea ere. Beste giza eskubide batzuk baliatzea ere funtsezkoa da hiriak iraunkorrak izan daitezen (adierazteko, elkartzeko eta herriko bizitzan parte hartzeko eskubideak barne, baina ez horiek bakarrik).

Tokiko politikek aintzat hartu behar dituzte herritarrek haien nortasuna libreki zehazteko, sortzeko gaitasunak garatzeko eta gauzatzeko, gainerako adierazpen kulturalak eta norberaren aintzatesteko eta elkarbizitzaren maila guztietako erabaki kolektiboetan parte hartzeko dituzten eskubideak. Tokiko politikek herritarrak tokiko bizitza kultureko agente nagusitzat hartu behar dituzte.

Politika publikoak eraikitzen dira herritarren eskubideen aintzatespena, erakunde betekizunen zehaztapena eta zerbitzu publikoen horniketa zentzuz eta arrazoituz egituratuta, betiere erantzukidetasun giroan. Hala, tokiko gobernuek oinarrizko zerbitzu kulturalak herritarren gutxieneko eskubide gisa zehaztu behar dituzte, pertsona eta talde ahulenei arreta berezia jarrita; hori, herritarren gaitasun kulturalen (eskubide, askatasun eta erantzukizunen) garapena ziurtatze aldera.

- a. Tokiko politika kulturalen oinarri esplizituak kultura-eskubideak dira.
- b. Tokiko gobernuek eskubide, askatasun eta erantzukizun kulturei buruzko erreferentziazko testuak onartzen dituzte.
- c. Tokiko gobernuek herritarrek (banaka edo gizarte zibileko taldeen ordezkari gisa) lehenetsunak zehazteko, erabakiak hartzeko eta politika kulturalak egikaritzeko edo ebaluatzeko prozesuetan parte hartzea errazteko neurriak hartzen dituzte.
- d. Oinarrizko zerbitzu kulturalak ziurtatzeko gutxieneko zerbitzuen estandarrak daude (esate batera, biztanle bakoitzeko liburutegi edo liburu kopurua).



# Ekintzak

- e. Herritarrek bizitza kulturean parte hartzeko dauzkaten eragozpenei buruzko analisi zehatz bat dago.
- f. Herritarrek kultura-jardueretan eta sorkuntza kulturean gehiago eta modu aktiboagoan parte hartzea helburu duten politika eta programak daude.
- g. Politika kulturelek arreta berezia ematen diete pertsona eta talde ahulenei.
- h. Politika kulturalen helburuetako bat emakumeek bizitza kulturean parte hartzeko aukera gehiago jartzea da eta, horretarako, genero-diskriminazioaren kontrako neurriak hartzen dituzte.
- i. Giza eskubideen alorrean lan egiten duten gizarte zibileko tokiko erakundeetan kultura-eskubideek lehentasuna dute.
- j. Gai kulturalak lantzen dituzten gizarte zibileko erakundeetan kide aktibo gehiago izateko politika eta programak daude.

# Kultura- eskubideak



# Ondarea, aniztasuna eta sormena

## Ondarea, aniztasuna eta sormena bizitza kulturalaren parte dira

Tokiko politika kulturalak ondareari, aniztasunari eta sormenari buruzko irizpideen arabera antolatzen dira. Lehenik, kontuan hartu beharra daukagu kulturaren inguruko bi ikusmolde tirabiran daudela. Bata soziologikoa da eta arte ederren errepertoriotzat hartu ohi da; eta bestea "antropologikoa" da, UNESCOk 1980an bere egin zuena, hain zuzen ere, zeinaren arabera kultura giza bizitzaren adierazpen, balio, sinesmen, jardunbide eta abarren multzoa den. Bi ikusmolde horien onena pragmatikoki aplikatze aldera, gaur egun beste aurrerapauso bat eman beharra dago, eta tokiko politikek sinbolikoa denaren eta espresiboa denaren arteko bidegurutzean, alegia abangoardiako adierazpen kulturalen eta eguneroko kulturaren arteko bidegurutzean, jarri behar dute interesa. Eta bidegurutze horretan daude haien lan artistikoa erkidegoaren bizimoduaren txertatzen duten sortzaile garaikideen jarduerak, gizarte-jardueren maila sinbolikoaren garrantzia eta lanbide eta jakintza tradizionalen aintzatespena, besteak beste.

Bigarrenik, "tradizioaren" eta "modernotasunaren" arteko elkarriketak dinamikoagoa izan behar du; izan ere, "ez ukitu" lema maizegi erabiltzen da, hau da: tradizioa finkatzeko edo isolatzeko joera dago. Orainaldiarekin elkarriketan aritzen ez den tradizioa estatiko bihurtzen da, fosildu egiten da. Halaber, tradizioz ongarrantzeko gai ez den abangoardia deserrotu egiten da.

Hirugarrenik, aniztasuna errespetatzeko eta merezi duen balioa emateko ezinbestekoak dira, batetik, estrategia kulturazintzunak (lurralde berean bizi diren eta kontakizun kultural desberdinak dituzten pertsonak aintzatestea); eta bestetik, kultura-arteko estrategiak (pertsonek artean loturak sortzeko aukera ematen duten jardura kulturalak). Kulturaren sorkuntzan eta ekoizpenean modu aktiboan parte hartuz gero, jendeak erkidegoak sortu eta birstutu ditzake. Alde horretatik, herri eta erkidego indigenen, gutxiengoaren eta migrazio-prozesuen ondorioz sortutako erkidegoen errealitateari arreta berezia eskaini behar zaio.

Azkenik, politika kulturalen helburu esplizitu edo inplizituak bat bikaintasuna lortzea izaten da. Hala, helburu hori lortzeko, bikaintasun kulturala "ikusgai jartzeari" lehentasuna ematen dioten proiektuak antolatzen dira; proiektu horiek maiz sendoak eta eraginkorak izaten dira, baina gizarte-oinarri eskasa izan ohi dute (gertatzen da, baita ere, gizarte-oinarririk ez izatea). Aldi berean, ordea, gizartean oso errotuta dauden baina oso nabariak ez diren proiektu kulturalak ere sortzen dira, eta horiei "hurbileko kultura" esaten zaie. Kultura-erloko artista eta profesionalek oinarritzko zeregina dute iraunkortasunean: haien lanetan ezagutzen dugunaren mugak esploratzen dituzte eta esanahi berriak sortzen dituzte. Gauzak horrela, politika kultural iraunkorrek egiteko ezinbestekoa da bikaintasuna eraikitzeko kondizio egokiak sortzea, hurbiltasunaren eta ikusgaitasunaren arteko elkarriketa berri bat abiapuntutzat hartuta.

- a. Tokiko gobernuen organigraman politika kulturalak (eta beste politika publiko batzuen alderdi kulturalak) arduratzen den sail, atal edo organo bat egon ohi da.
- b. Tokiko gobernuak kulturarako aurrekontu bat dute, haien erantzukizunaren eta nazioarteko eta nazioarteko estandarren arabera eta tokiko bizitza kulturalaren garapen iraunkorra ziurtatzeko modukoa. Kultura-erloko aurrekontuaren parte handi bat sektore kulturala bera aztertze, garatzeko eta berritzeko erabiltzen da.
- c. Tokiko gobernuak kultura-erloko prestakuntza, sorkuntza eta ekoizpenerako askotariko egiturak (egoitzak, proiektu-haztegiak, sorkuntza-fabrikak, laborategiak) eta egitura horien eskuragarritasuna babesten



# Ekintzak

dituzte.

- d. Tokiko gobernuek arte-sorkuntzak ikusgai jartzeko eta biztanle-taldeen arteko topaketak bultzatzeko jarduera kulturalak antolatzea sustatzen dute.
- e. Politika eta programa batzuk biztanleen eta haien ekimenen hurbiltasuna oinarri hartuta eraikitzen dute bikaintasuna.
- f. Politika eta programa batzuk adierazpen kultural anitzek eta kulturarteko proiektuek elkar aintzatestea sustatzen dute, esplizituki.
- g. Politika eta programa batzuk hizkuntza-aniztasuna babesten eta sustatzen dute, bereziki gutxiengoan hizkuntzak edo hizkuntza gutxiagotuak.
- h. Arteak babesteko politikak daude, eta diziplina guztiak hartzen dituzte kontuan.
- i. Ondare kulturalaren maila guztiak (materialak eta immaterialak)

babesteko politikak daude.

- j. Kultura zientifikoaren gaineke politika eta programak daude, eta gizarte zibileko tokiko erakundeekin, agente pribatuekin, erakunde kulturalekin eta prestakuntza-zentroekin elkarlanean gauzatzen dira. Programa horietan kultura zientifikoak, kultura artistikoak, tokiko historiak eta eguneroko bizimoduak elkarri eragiten diete.
- k. Tokiko ekoizpenek presentzia nahikoa eta orekatua dute hiriko kultura-jardueren multzoan.
- l. Nazioarteko lankidetzak kulturalako programak daude. Programa horiek tokiko bizitza kulturalarekin dute zerikusia eta kultura-adierazpenen aniztasuna babesten eta sustatzen dute.

## Ondarea, aniztasuna eta sormena



# Kultura eta hezkuntza

## Herritarrak aktiboak izan daitezen sustatzea, gaitasun kulturalak eraikiz

Garapen kulturala adierazpenerako eta ezaupideak eskuratzeko aukerak gehitzeko prozesua da eta, hori dela eta, hezkuntzari eta etengabeko ikaskuntzari estuki lotua dago. Ikertuz, alderatuz eta esperimentatuz jakintza transmititzea eta ezaupideak garatzea ekintza kulturalak dira. Egiaz, hezkuntza eta etengabeko prestakuntza kultura-eskubideen parte dira. Hiriak baliabide kulturalen eta hezkuntzaren arteko sinergiak aztertzeke aparteko ikaskuntza-eremuak dira. Sinergiak hainbat erakoak izan daitezke: ikastetxeetan eta hezkuntza-zentro formal eta informaletan kultura eskurago jartzea eta parte-hartzea hobetzea, heziketa artistikoa eta sorkuntza- eta teknologia-gaitasunak sustatzea, eta artistek eta kultura-erakundeek hezkuntzaren eta kultura-bitartekaritzaren arloko jarduerak diseinatzea, besteak beste.

Politika kulturaletan hezkuntza formala eta ez-formala hartu behar dira aintzat, baita adin-talde guztietako herritarren ikasteko aukerak ere, eta finkatutako jakintzen eta eguneroko erabileretatik sortzen diren eta gizartea berritzea eragiten duten jakintzen arteko trukeak eta konexioak sustatu behar dira. Gure ezaupideen aniztasuna baloratzeak gure bizitza-lurraldean kultura-aberastasuna aintzatesten laguntzen du. Hezkuntza-ingurune tradizionalak ez ezik (kasu baterako, eskolak eta unibertsitateak), gizarte zibileko agenteek ere zeregin garrantzitsua izan dezakete herritarren jarrera kritikoa sustatzen duten askotariko ezaupide eta gaitasunen garapenean. Halaber, funtsezkoa da pedagogia anitzak baliatzea eta hezkuntzako agenteak aniztasun horretan egoki trebatzea. Bilakaera teknologikoek ere garrantzi handia dute, eta hezkuntza-erronkei demokrazia kulturalarekin bat datorren ikusmoldearekin aurre egiteko aukera ematen dute. Kulturako sektore guztietako enplegu-estrategien arteko sinergiak ere hartu behar dira aintzat: ikasleentzako prestakuntza-aukerak sortu behar dira, profesionalak gaitzeko ikastaro-eskaintzak zabala izan behar du eta ezaupideak trukatzeko sareak antolatu behar dira.

Hiria etorkizunera begira jartzeko ezinbestekoa da kulturaren garapenean herritar berri guztiak sartzea (haurrak eta nerabeak). Haur eta gazteek subjektu trebe eta sentibera gisa tratatzeko eskubidea dute, ez kontsumitzaile huts gisa. Gaur egungo hezkuntza-prozesuak gure kulturaren fruituak dira eta, halaber, etorkizuneko kultura eraikitzeke aukera ematen dute. Joan-etorriko prozesu horretan, hiriak lurraldeko hezkuntza-erkidegoa osatzen duten agenteen aintzatespenaren eta gaikuntzaren giltza dira.

- a. Hezkuntza- eta prestakuntza-estrategiek egoki baloratzen dituzte tokiko baliabide kulturalak.
- b. Tokiko gobernuek hezkuntza-politika eta politika kulturala lotzen dituen tokiko estrategia bat onartu du.
- c. Kultura, hezkuntza eta etengabeko prestakuntzako agente publiko, hiritar eta pribatuak biltzen dituen tokiko plataforma edo sare bat dago.
- d. Babes publikoa duten kultura-erakundeek ingurune formal eta ez-formaletarako hezkuntza-jarduerak antolatzen dituzte eta aurrekontuaren parte handi bat horretarako baliatzen dute.

# Ekintzak

- e. Jarduera kulturelei eta hezkuntza kultureko aukerei buruzko informazioa eskuratzeko baliabideak daude (esate batera: online atariak, informazio-zentroak eta abar).
- f. Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleen curriculumak aintzat hartzen du abilezia eta ezaupide kulturalak eskuratzeko (kulturarteko elkarrizketa, aniztasunaren balioa aintzatestea, sormena, ondare ukigai eta ukiezinak, tresna digitalak).
- g. Eskola, prestakuntza-zentro, elkarte eta enpresetan kultura-jarduerak antolatzen dituzte (sormena, hedakuntza eta bitartekaritza): “egoitza artistikoak” eta sormena trebatzea aintzat hartzen duten proiektu integralak, besteak beste.
- h. Hezkuntza artistikoko tokiko eskaintza dago (adibidez: musika, ikusmen-arte, arte eszeniko eta ikus-entzunezkoetako eskolak, besteak beste); hori, maila guztietan eta adin eta egoera guztietako pertsonentzat.
- i. Kudeaketa eta politika kulturalaren inguruko tokiko prestakuntza-eskaintza dago, giza garapenerako faktore kulturalen ikuspegi osoa sustatzen duena.
- j. Kultura-eskubideak eta, oro har, giza eskubideak aintzat hartzen dira hezkuntza-programetan eta sektore kulturaletako prestakuntza-jardueretan.

## Kultura eta hezkuntza



# Kultura eta ingurumena

## Faktore kulturalak ingurumenaren gaineko erantzukizunaren bizkortzaileak dira

Kulturak garapen iraunkorren garrantzi handia duela onartzeak kultura- eta ingurumen-arloen arteko loturak aztertzea dakar berekin. Gai kulturalak eragina dute ingurumena ulertzeko eta ingurumenarekin harremanetan jartzeko gure moduetan. Hurrengo belaunaldien ongizatea kontuan hartzeak ingurumenari buruzko hausnarketa esplizitua egitea eragin du, eta hausnarketa horretan kultura ere sartu behar da.

Kultura-jardunbideen, balioen eta munduaren gaineko ikuspegi bitartez, lurralde bateko biztanleek haien ekosistemak aldatzen dituzte. Giza jardueretan natura-eremuak eta baliabide biologikoak erabiltzen dira; eremu eta baliabide horiek, maiz, giza jardueren mende daude, eta batzuk, giza jarduerarik gabe, desagertu ere egingo lirateke (nekazaritzako ondare biologikoa, adibidez). Eremu eta baliabide horiek kultura-eramaile ere badira, gure historiarekin, ezaupide praktikoekin eta nortasunarekin lotura dutelako (esate batera, ondare gastronomikoa), eta, halaber, balio estetikoak dute (hiriko eta landa-eremuetako paisaiak) eta aldaketei erantzuteko dugun gaitasuna (erresilientzia) baldintzatzen dute. Biztanleen ekosistemen inguruko jakintza da lurraldeetako aberastasun nagusia. Mendeetan, biztanleen jarduerak hiriko eta landa-eremuetako paisaia moldatu du. Eta ezaupide tradizional horiek aintzatetsi eta lurraldeetako oreka ekologiko eta kulturala hobeto ezagutzeko erabili behar dira. Ezaupide horiek eta jakintza akademikoa lotu egin behar dira, batik bat lurraldeen oreka ekologikoan eragina izan dezaketen lurralde-proiektuetan. Informazio hori lantzea eta zabaltzea funtsezko ekintza kulturalak dira pentsamendu ekologikoa eta garapen iraunkorrari datzekion balioak hedatzeko. Natura eta kultura elkarri eraginez bilakatu dira eta orekatuta daude, nahiz eta oreka hori etengabe bilakatzen den. Aniztasun kulturala eta biologikoa estuki lotuta daude.

Tokiko gobernuek klimaren aldaketa behar bezala aintzat hartzea ziurtatzeko eta erronka global horren aurrean herritarren jakintzak eta gaitasunak sustatzeko giltza dira. Gainera, tokiko gobernuek elikagai ekologiko eta osasuntsuak ekoizteko moduak garatzeko behar diren baliabideek eskuratzea erraztu dezakete. Azpiegitura eta jarduera kulturalak (esate batera, ekitaldi eta ekipamenduek) eragina dute ingurumenean, eta tokiko gobernuek inpaktu horren erantzukizuna beren gain hartu behar dute. Kultura-agenteei herritarrek ingurumenaren inguruko kezkei jabetasun erabilera naturalen erabilera iraunkorragoa sustatzen lagun dezakete.

- a. Ingurumenaren iraunkortasuna sustatzeko tokiko estrategietan, faktore kulturalak (pertsona eta erkidego guztien jakintza, tradizio eta jardunbideak barne) aintzat hartzen dituzte.
- b. Tokiko politika kulturalak kulturaren eta iraunkortasunaren arteko lotura zehazten dute (adibidez: klima aldaketaren gaineko kezka, erresilientzia, hondamendietako arriskuak prebenitzea, baliabideen erabilera iraunkorra eta ekosistemen aberastasunaren eta zaugarritasunaren gaineko sentsibilizazioa).
- c. Tokiko gobernuak kultura eta ingurumen sailak koordinatzeko lan-talde edo mekanismo bat dago.





# Ekintzak

- d. Tokiko produktuen gaineko ezagutzan oinarritutako ekoizpen- eta kontsumo-jarraibideak sustatzerakoan historia eta kultura aintzat hartzen dira.
- e. Hurbileko produktuetan oinarritutako gastronomia tokiko kulturari datzekion jardueratzat hartzen da.
- f. Tokiko gobernua eremu publikoak modu iraunkorren erabiltzeko herritarren ekimenak errazteko eta sustatzeko neurriak hartzen ditu, batik bat lorezaintza berriarekin eta gizarte-berrikuntzako beste adibide batzuekin zerikusia duten ekimenen gainekoak.
- g. Tokiko gobernua ekosistemako baliabideak modu iraunkorren erabiltzen laguntzen duten ezaupide eta jardunbide tradizionalak zaintzeko eta zabaltzeko programak antolatzen ditu.
- h. Tokiko gobernua natura-eremuen interes kulturala dutela aintzatesten du, programa espezifikoaren bitartez.
- i. Laguntza publikoa jasotzen duten erakunde kulturek haien ingurumen-inpaktuak ebaluatzen dituzte eta kontzientziario ekologikoko jarduerak gauzatzen dituzte.
- j. Kulturaren eta ingurumenaren alorretan lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuak eta gizarte zibileko erakundeak lotzen dituzten instantzia edo plataformak daude.

## Kultura eta ingurumena



# Kultura eta ekonomia

## Ekonomia iraunkorra izan dadin, erantzukizun kulturala ezinbestekoa da

Ekonomiak, iraunkorra izan dadin, oinarri dituen balioak aztertu eta dagoen inguruneko kultura-baliabideak aintzat hartu behar ditu. Ekonomia tokiko baliabideetara egokituz gero izango da legitimoa eta dinamikoa.

Jarduera kulturalak garrantzitsuak dira garapen ekonomikoa osoa eta iraunkorra izan dadin. Izan ere, jarduera ekonomikoak eraberritzeko eta jarduera ekonomiko berriak sortzeko bidea ematen dute; ekintzailtza, lan-merkatuarentzat sarbidea eta lan-munduratzeko bultzatzen dituzte; lurraldea erakargarriago bihurtzen dute; eta turismoa garatzea errazten dute. Aitzitik, epe luzeko iraunkortasunaren kalterako, epe motzerako eta irabazi ekonomikoak ahal bezain laster lortzeko helburuei lehentasuna eman dieten eredu ekonomikoek tokiko kultura-baliabideak gutxietzea edo neurrigabe ustiatzea eta biztanleak eta lurraldea urruntzea ekarri dute. Kultura-baliabideen erabilera iraunkorrak kulturaren funtsak eta balioak errespetatu behar ditu, eta kultura eta ekonomia garatzen lagundu behar du. Garapenaren alderdi kulturala aintzat hartzen duten eredu ekonomikoak garatzeko, ekarpenean, mutualizazioan, trukean edo dohaintzan oinarritutako jardunbideak hartu behar dira kontuan.

Antolamendu ekonomikoek balio eta aukera kultural zehatz batzuk dituzte oinarri. Ekonomia pertsonak eta ekosistemen oreka ardatz hartuta garatzeko, funtsezkoa da, batetik, ekonomia publikoko, merkatu-ekonomiako eta guztien ondasunen ekonomiako agenteen jarduerak egituratzea; eta bestetik, agenteen arteko elkarrekikotasuna ezartzen hastea. Ekosistema kulturala ezin da ekonomiaren eranskintzat hartu, aitzitik: ekonomiaren oinarria da. Beraz, ekosistema kulturala aintzat hartu beharra dago garapen iraunkorraren gainerako dimentsioen arteko loturan.

ekoizpen-jarduera guztietan bezala, honako hauek kontuan hartu behar dira: artisten eta kulturako profesionalen aintzatespen ekonomiko egokia, obren eskuragarritasuna, enpresen erantzukizun korporatiboa eta proiektu kulturalak babesteko mekanismo nahikoa edukitzea.

Agente kulturelek sortutako kanpo-eraginak kontuan hartuta, ekosistema kultural iraunkorretan tokiko sare kultureko baliabideak berriz inbertitu behar dira, ahulenak eta gutxien ikusten direnak izan arren gainerakoek bezainbesteko garrantzia duten ekimen kulturei arreta berezia jarrita (adibidez: prestakuntza artistikoko zentroak, oinarritzko erakundeak, gutxiengoan adierazpenak eta bitartekaritza kulturala).

- a. Tokiko garapen ekonomikorako estrategiek kulturaren ekonomiako logika espezifikoak aplikatzen dituzte eta kulturako agenteekin lan egiten dute, herriko edo lurraldeko sektore ekonomiko nagusietako bat izan dadin.
- b. Agente kulturek (publiko, pribatu eta hiritarrek) tokiko ekonomian egiten duten ekarpena, aberastasunaren eta enpleguaren sorreran duten eragin zuzen edo zeharkakoa barne, aldi-aldi aztertzen da.
- c. Sektore kultureko langileen kontratazio- eta ordaintza-eskemak legez bermatuta daude, baita egile-eskubideen eta kultura-arloko beste eskubide batzuen aintzatespena ere.
- d. Egile-eskubideei eta sorkuntza partekatuko jarduerekin eta sortutako banatzeko modu berriekin zerikusia duten eredu ekonomikoetako buruzko informazioa eta prestakuntza emateko lekuak daude.

# Ekintzak

- e. Lan-merkatuak sarbideari eta lan-munduratzeari buruzko programetan jakintza eta gaitasun kulturalak aintzat hartzen dira.
- f. Merkatu-izaera duten proiektu kulturalak finantzatzeko askotariko mekanismoak daude: mikroredituak, arrisku-kapitala, laguntza-eskemak eta mezenasgo-programak, besteak beste.
- g. Tokiko gobernuak proiektu kulturaletarako borondatezko ekarpeni balioa ematea edo ekarpen horiek ugaltzea ahalbidetzen duten eskema ekonomiko publiko edo mistoak sustatzen ditu (mikro-mezenasgoa, boluntarioria eta abar).
- h. Agente kulturalak eta enpresak elkarlanean aritzen dira, berritzeko eta ezaupideak eskualdatzeko eskemen bitartez, adibidez (legoitzak).
- i. Lurraldean errotuta dauden lanbideei eustea baloratzen da, baita behar duten berrikuntza gauzatzea ere, hala badagokie.
- j. Eredu turistikoa iraunkorra da: lurraldean orekatua eta tokiko erkidegoari lotua dago eta ekosistema kulturalari eragiten dio (baita ekosistema horrek ereduari ere).
- k. Enpresen gizarte-erantzukizuneko programek esplizituki hartzen dituzte aintzat kultura-arloko gaiak eta proiektuak, baita biztanleen balio kulturalak eta tokiko kultura ere.
- l. Tokiko enpresa-erakundeek, merkataritza-ganberek kasu, kulturaren inguruko politika eta programa bereziak dituzte.

# Kultura eta ekonomia



# Kultura, zuzentasuna eta gizarteratzea

## Faktore kulturalak gizarte-lotura berriak garatzen laguntzen dute

Kultura- eta sorkuntza-prozesuek eragin handia dute pertsonen ongizatean, osasunean eta autoestimuan. Gizabanakoei eta giza taldeei haien historia eta identifikazio-prozesuak aztertzeke bidea ematen die, haien bizimoduan zentzu eta esanahi berriak garatzea errazten dute eta askatasuna areagotzen dute. Prozesu kulturalak bazterkeria alboratzeko eta "inor atzean ez uzteko" giltza dira.

Bizitza kulturean modu aktiboan parte hartzea gizarteratzearen giltzetako bat izan daiteke: herritarrek gehiago parte hartzeko motibazioa eta abileziak lantzen ditu; gutxiengoen adierazpenak ikusgai jartzen ditu; taldeen arteko aintzatespena eta lankidetzara areagotzen ditu, belaunaldien eta kulturen arteko elkarrizketan; enplegurako aukerak handitzen ditu; eta lurraldeetako segurtasuna eta irudia hobetzen ditu, besteak beste. Kultura topaleku berriak martxan jartzeko eta esanahi kolektibo berriak garatzeko bitarteko garrantzitsua da. Halaber, taldeen eta erkidegoen gatazkak konpontzen, gizarte-sareak indartzen eta erresilientzia hobetzen lagun dezake.

Faktore kulturalak zerbitzu publiko batzuk (adibidez, osasuna, hezkuntza, gizarteratzea eta enplegua) eskuratzea sustatu edo eragotzi dezakete. Alde horretatik, arduradun politikoei eta zerbitzu publikoetako langileei zerbitzu horien prestazioan eta sarbidean gertatzen diren diskriminazioak antzematen eta haiei aurre egiten ahalegindu behar dute. Diskriminazioaren kontrako politika eta programek faktore kulturalak eta jarduera politikoen gainerako arloek berdindutuzten gaiak aztertu behar dituzte. Arlo horietako prozesuetan epe luzearako konpromisoak hartu eta metodologia ireki eta parte-hartzaileak aplikatu behar dira.

Helburua bada ere guztiei parte hartzeko aukera gehiago ematea eta elkar aintzatezteko eremu komunak sustatzea, gizabanakoen aukera-askatasuna errespetatu behar da (baita jarduera kulturetan ez parte hartzeko aukera ere), herritartasuna baliatzeko ezinbesteko baldintza gisa, baldintza hori desberdintasun-eskubidearen aintzatespenaren eratorria baita.

- a. Gizarte-arloko tokiko estrategiek (osasun-, enplegu-, ongizate- eta gizarte-arlokoek) gai kulturalak berariaz hartzen dituzte aintzat, era guztietako diskriminazioari aurre egiteko bitarteko gisa.
- b. Lurraldeko talde edo gizabanako zehatz batzuen ahultasun eta zaugarritasun kulturalaren oinarri diren faktoreak aztertu egiten dira aldian-aldian, pertsona eta talde horiek zuzenean inplikatzeko dituzten prozesuen esparruan.
- c. Gizabanakoen ongizatearen eta osasunaren eta kultura-jardunbide aktiboen arteko lotura aldian-aldian aztertu da.
- d. Gizarte-arloko profesionalak eta erakundeak gaitzeko programa bat dago, zeinaren helburua den zerbitzu publiko batzuk eskuratzea eragotzen duten faktore kulturalak identifikatzeko eta faktore horiei aurre egiteko gaitasuna hobetzea.



# Ekintzak

- e. Tokiko gobernuak kultura-aurrekontuaren eta baliabide publikoen parte bat emakumeek jarduera eta erakunde kulturaletan modu aktiboan parte hartzea sustatzeko erabiltzen du, batik bat profil eta erantzukizun handieneko mailetan, eta baita normalean emakumeak gehiago inplikatzaren diren jarduera kulturalen ikusgarritasuna eta prestigioa baloratzeko, sustatzeko eta areagotzeko ere.
- f. Laguntza publikoa jasotzen duten erakunde kulturalak desabantailak dituzten taldeak aintzat hartzen dituzten programak gauzatzeko dituzte, eta lurraldeko arlo zailenatarako programak antolatzen dituzte (hori, pobrezia eta bazterkeria dagokionez).
- g. Ekipamendu eta eremu kulturalak jende guztiaren eskura daudela (baita desgaitasunak dituzten pertsonen eskura ere) ziurtatzeko neurriak hartu dituzte.
- h. Gatazkak konpontzeko tokiko estrategiek kultura kontuan hartzen dute eta faktore kulturalen ahalmena aintzatesten dute.
- i. Belaunaldiarteko elkarlana sustatzeko programak daude.
- j. Gazteentzako berrikuntza kulturalako programak daude, eta programa horietan gai hauek kontuan hartzen dituzte: gizarteratzea, lengoia kulturalak, ingurune digitalak eta genero-berdintasuna, besteak beste.
- k. Kulturaren, zuzentasunaren eta gizarteratzearen inguruko jarduerak antolatzen dituzten hirugarren sektoreko elkarte, kooperatiba eta erakunde tokiko plataforma edo sare bat dago.
- l. Gizarte zibileko tokiko erakundeek sentsibilizazio-kanpainak egiten dituzte (kultura-aniztasuna eta kulturarteko elkarriketa sustatzeko, arrazakeria kontra egiteko eta abar); hori, erakunde publiko eta kulturalen babesarekin.

**Kultura,  
zuzentasuna  
eta  
gizarteratzea**



# Kultura, hiri-plangintza eta eremu publikoa

## Hiria eta lurraldea kontzientzia eta zentzu kulturalarekin antolatzea

Lurralde ingurunearen eta gizajardueren arteko elkarrekintza emaitza da. Lurraldeak, gizakien okupazioaren eta ikusmoldearen seinaleak dituzenez, historia, zentzu eta esanahia dauka bertako biztanleentzat. Lurraldeak, beraz, dimentsio kulturala du, eta dimentsio hori islatzen da, besteak beste, herritarren jardunbide eta ohituretan, ondarean, arkitekturan, diseinuan, arte publikoan, paisaian, ingurumenarekiko harremanean eta ingurunearen antolamenduan. Faktore kulturalak tresna ahaltuak dira bizi-inguruneak eraikitzeke, eta herritarrek ingurune horietan beren burua ikusteko, identifikatzeko eta bizitza-proiektuak askatasunez gauzatzeko. Kultura mundua berrirudikatzeke oinarritzko maila bat da.

Hiri eta eremu publikoak antolatzea ezinbestekoa da hiriek eta eskualdeek iraunkortasunerako bidea egin dezaten. Faktore kulturalak esplizituki aintzat hartzen ez dituzten hiri-plangintzek eragin kaltegarriak dituzte ondarearen zaintzan; oroimena, sormena eta bizikidetzaren lantzea eragozten dute; homogeneizazioa sustatzen dute; eta bizitza kulturalen sartzeko eta parte hartzeko aukerak mugatzen dituzte. Labur esateko, gaur egun hiri-plangintzek kulturaren eragina ebaluatu behar dute, XX. mendean ingurumen-inpaktua ebaluatzen hasi ziren bezala.

Gauzak horrela, kultura, hiri-plangintza eta eremu publikoak uztartzeko ezinbestekoa da (a) hiri- eta lurralde-garapenerako proiektuak dagozkien testuinguru kulturalaren arabera moldatzea (kasu baterako, ahal denean tokiko ezaupideak eta eraikuntza-teknika tradizionalak erabiltzea, kanpoko ereduak inportatu beharrean); (b) azpiegitura eta jardura kulturalak hiria biziberritzeko duten ahalmena aintzatestea, egoki diseinatuta daudenean; (c) baliabide eta aukera kulturalen plangintzan, hiriguneak eta deszentralizatutako auzoak orekatzea, baita formatu handi eta txiki ekipamenduak ere; eta (d) herritarrek eta lurraldeko agenteek hiriaren eta lurraldearen antolamenduan parte hartzea, aurren-aurreneko faseetan hasita.

- a. Tokiko hirigintza-planek (master plan direlakoek) esplizituki aintzatesten dute baliabide eta faktore kulturalak duten garrantzia.
- b. "Kulturaren eragina ebaluatzeke" eredugarri den dokumentu bat dago eta hirigintza-politikak antolatzeke erabiltzen da; horrez gain, dokumentu hori erabiltzeke errazteke gaikuntza-programak daude.
- c. Tokiko gobernuak hiriko edo eskualdeko ondare kultural ukigarri eta ukigaitzaren eta natura-ondarearen inbentario bat dauka, eta ondare horiek zaintzeke mekanismo egokiak ezarri ditu, nazioarteko estandarren arabera.
- d. Tokiko gobernuak kulturak herrigune historikoen berrikuntzan eta lurraldeak, auzoak edo barrutiak garatzeko planetan duen egitekeo sustatzeko neurriak hartzen ditu.



# Ekintzak

- e. Azpiegitura kultural berriak ekosistema kultural zabal bateko pieza gisa antolatzen dira, eta azpiegitura horiek izango duten eragina aurreikusten da.
- f. Tokiko gobernua paisaia esplizituki aintzat hartzen du politiketan, eta alderdi natural eta kulturalak txertatzen ditu.
- g. Tokiko gobernua eremu publikoa (esate batera, kaleak, plazak eta hiriko beste leku komun batzuk) elkarrekintza eta partaidetza kulturalerako giltza den baliabidetzat dauka.
- h. Daukaten funtzio sinbolikoagatik guztientzako ondasun diren eremuen zerrenda bat dago.
- i. Arte publikoa garatzea eta zaintzea sustatzeko programak daude.
- j. Jarraibide arkitektoniko bat dago, honako hauek oinarri dituena: kalitatea, dauden eraikinen berrikuntza, eraikin berrien plangintza eta eraikuntza-teknika tradizionalen erabilera.
- k. Hiriko garraioaren eta mugikortasunaren inguruko politikak herritarrek bizitza kulturala eskura izatea aintzat hartzen dute, batik bat haurrak dituztenek eta hiriaren kanpoaldean bizi direnek edo baliabide kulturalak eskuratzeko oztopo espezifikoak dituztenek.
- l. Tokiko gobernua herritarrek hiri-plangintzan eta lurraldearen eraldaketan (adibidez, hiriaren diseinuan, arkitekturan eta arte publikoan) modu aktiboan parte hartzea errazten duten politikak eta ekintzak antolatzen ditu.

**Kultura,  
hiri-  
plangintza  
eta eremu  
publikoa**



# Kultura, informazioa eta jakintza

## Teknologiek aniztasuna eta herritartasuna eraikitzen laguntzen dute

Informazioa eskuratzeko eta jakintzaren sorreran parte hartzeko aukerak gehitzea garapen iraunkorraren oinarritzko baldintzen parte den kultura-arloko prozesu bat da. Historian, ezaupideak libreki zabaltzeak gizartean kultura bilakatzea ziurtatu du: garai bakoitzeko sorkuntzak aurreko garaietako ezaupide eta sorkuntzetan oinarrituta daude. Herritarrek datuak errazago eskuratzen badituzte, informazioa kalitatezkoa bada eta herritarrek informazio hori sortzeko, aztertzeko, ekoizteko eta hedatzeko prozesuetan parte hartzen badute, baliabideak gardenago egokitzen dira eta herritarrek garapen-prozesuak bere egiten dituzte. Gainera, teknologia, berrikuntza eta konektibitatea gero eta garrantzitsuagoak direnez, baliabide horiek erkidegoak egoki aldatzeko eta tokiko arazoei eta biztanleen iguripenei erantzuteko balio dezakete.

Berritzeko ahalegina egitea ezinbestekoa da, eta erakunde publikoek egin behar dute hori bereziki, teknologia digitalaren bidez informazioa eskurago izateak ez dezan, inola ere, pribatutasuna galtzea ekarri.

Informazioarekin eta jakintzarekin lan egiten duten erakundeek, alegia liburutegi, artxibo, museo, gizarte zibileko erakunde eta hedabideek, besteak beste, kultura-eskubideei eta zerbitzu publikoei buruzko informazioa eman dezakete. Informazio hori funtsezkoa da pertsonak eta tokiko erkidegoak ahalduzko. Erakunde horiek, gainera, agenteak elkartu ditzakete eta jardunbideen trukea erraztu dezakete; ondare kulturala etenik gabe eskura izatea ziurtatu dezakete; foro eta eztabaida publikoak sor ditzakete; eta prestakuntza eskain dezakete, herritarrek informazioa eskuratu, ulertu eta bereganatu ahal dezaten.

Gainera, hiriko politikek informazioaren sorkuntzan, ekoizpenean, eskuragarritasunean, hedakuntzan eta trukean izandako aldaketak kontuan hartu behar dituzte, baita kultura- eta sorkuntza-industrietako aldaketak ere. Aintzat hartu behar dute, halaber, aldaketa horiek testuinguruaren eta tokiko agenteen gaitasunen arabera nola moldatu daitezkeen. Gaur egun, kulturaren eremu publikoak maila birtual bat ere badu: internet. Faktore horiek guztiak direla eta, nazioarteko konektibitateko aukerak sustatu behar dira, baita sareko eta lineako lanaren eta lan presentzialaren bitartez ere.

- a. Legeak ziurtatzen ditu, batetik, adierazpen-askatasuna, adierazpen artistikoa barne; bestetik, nor bere iritzia emateko eta informazioa jasotzeko eskubidea; eta azkenik, kultura-aniztasuna eta pribatutasuna errespetatzea.
- b. Askatasun horiek behatzeko mekanismo publikoak daude, eta gizarte zibilak ere baditu horretarako bere mekanismoak.
- c. Informazio aske eta askotarikoa eskura izatea ziurtatzen duten politikak daude, baita dagoen informazioak herritarrek bizitza kulturean parte hartzea errazten duela ziurtatzeko neurriak ere.
- d. Tokiko hedabideetan askotariko iritzia agertzen dira, emakumeen mezuei leku eta garrantzi bera ematen diete eta tokiko eta nazioarteko kultura-aniztasuna adierazten dute.





# Ekintzak

- e. Errealitate kulturala zertan den eta errealitate horrek giza garapenaren beste arlo batzuekin zer-nolako elkarrekintza duen behatzeko, ikertzeko eta aztertze sistemak daude, eta sistema horiek unibertitateak, gobernuak eta gizarte zibila inplikatzen dituzte.
- f. Informazio- eta komunikazio-teknologiak xede kulturaletarako eskuratzeko eta aprobetxatzeko dauden oztopoak aldian-aldian aztertzen dira.
- g. Oinarrizko prozesu kulturalen eta berrikuntza sozialaren arteko lotura aldian-aldian aztertzen da.
- h. Sorkuntza, ekoizpen eta hedakuntza digitalari buruzko politikak eta programak daude; eta politika eta programa horiek biztanleak dituzte ardatz eta demokrazia kulturalari mesede egiten diote.
- i. Laguntza publikoa jasotzen duten erakunde kulturek informazioari eta jakintzari buruzko eztabaidetan parte hartzen dute eta kulturak guztien ondasun gisa duen balioa modu koherentean babesten dute.
- j. Kultura-arloko profesionalak kultura eskuratzeko edo erreproduzitzeko dauden moduen (esate batera, copyright, copyleft, sarbide ireki eta abarren) eragin kultural, sozial eta ekonomikoari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak daude.
- k. Agente kulturek nazioarteko lankidetzaren sareetan parte hartzeko politika eta programak dituzte.

Kultura,  
informazioa  
eta jakintza



# Kulturaren gobernantza

## Tokiko politika kulturalen gobernantza orekatu eta partekaturako bidean

Gobernantzak berekin eraman behar ditu "gobernu egokia" eta "gobernu partekatua", eta hiru maila dauzka: agente askoko gobernantza (sektore publikoa, sektore pribatua eta gizarte zibila), zeharkako gobernantza edo gobernantza horizontala (jarduera publikoko arloak) eta maila askoko gobernantza edo gobernantza bertikala (gobernu-mailak).

Garapen iraunkorreko tokiko estrategietan faktore kulturalak zeharka txertatzerakoan ezinbestekoa da kulturaren izaera komuna eta kulturak aintzatespen-, esperientzia- eta ikaskuntza-eremu komunak eraikitzeke duen garrantzia aintzatestea. Horretarako, inplikaturako agente guztiek (agente askoko gobernantza) erantzukizuna partekatu behar dute. Tokiko gobernuak ez ezik gizarte zibileko agenteak, erakunde pribatuak eta herritar partikularrak ere funtsezko agentetzat hartu behar dira eztabaida publikoetan, lehentasunen ezarpenean, politiken egikaritzean eta programen kudeaketan eta ebaluazioan. Tokiko gobernuak, garapen iraunkorraren erantzukizun orokorra bere gain hartzeaz eta kulturaren parte hartzeko ingurune egokia sortzeaz gain, gai izan behar du, batetik, hainbat eginkizun burutzeko (izan ere, kasuan-kasuan aitzindari, finantzatzaile, bideratzaile eta behatzaile izan daiteke, besteak beste); bestetik, lankidetzarako oztipoak antzemateko; eta azkenik, agenteen arteko sinergiak sustatzeko. Gehiegizko instituzionalizazioak pribatizazioak bezainbeste desorekatzen du tokiko ekosistema kulturala.

Bizitza kulturean parte hartzeko eskubideak gauzatzeko, politika guztien dimentsio kulturalak hartu behar dira aintzat. Kulturaren tokiko gobernantzak bide eman behar du, batetik, askotariko mapa kulturalak egiteko (hau da, baliabide eta harreman kulturalen zehaztapenean parte hartzeko); bestetik, estrategia antolatzeke (alegia lehentasunak zehazteke eta funtsezko ekintzak diseinatzeke); eta azkenik, ebaluazioa egiteke. Gobernantza orekatua bada, partaidetza-instantzia publikoak (tokiko kultura-kontseiluak, adibidez) edo independenteak (gizarte zibilak sortutakoak) ezartzea sustatzen da.

Kulturaren gobernantza egokia izan dadin, zeharkako koordinaziorako mekanismoak jarri behar dira, bai kultura-arloan erantzukizuna duten sailetan, bai maila askoko gobernantza-esparruetan; hori, tokiko, eskualdeko eta nazioko gobernuak errazago koordinatzeko.

- a. Tokiko gobernuak kulturaren Agenda 21en eta "Kultura 21: Ekintzak" dokumentuan oinarritutako politika kulturala dauka ezarria, eta politika horrek ekimen publiko, hiritar eta pribatuak elkartzen ditu, proiektu bateratu batean.
- b. Tokiko gobernuak tokiko, auzoko edo barrutiko plan kulturalak sortzea sustatzen du.
- c. Tokiko gobernuak partaidetza publikorako instantziaren bat sortzen du (tokiko kultura-kontseiluak, adibidez), non agente publiko, hiritar eta pribatuek parte hartzen duten; instantzia horren xedek tokiko politika kulturalarekin du zerikusia.
- d. Proiektu publikoek proiektu horien helburuak eta metodoak hitzartzeko, negoziatzeko eta arautzeko eremu iraunkorrak sortzen dituzte, eta eremu horietan inplikaturako agente guztiek parte hartzen dute, hausnarketa-dinamiken bitartez eta etorkizunera begira.



# Ekintzak

- e. Laguntza publikoa jasotzen duten erakunde kulturalak gardenki kontu ematen dute eta eskaintzen duten zerbitzu publikoa ebaluatzen dute; gainera, herritarrek ordezkariak dituzte erakunde horien zuzendaritza-organo gorenetan.
- f. Laguntza publikoa jasotzen duten programa eta erakunde kulturalak genero-ikuspegia aintzat hartzen dute.
- g. Herritarrek instalazio, programa eta ekitaldi kulturalen kudeaketan parte hartzea babesten duten politika eta programak daude.
- h. Tokiko gobernuak tokiko kulturaren adierazpide diren eta guztien ondasunen inguruan gauzatzen diren kudeaketa-jardunbideak aintzatesten eta babesten ditu.
- i. Herritarrak eta sektore guztietako agente kulturalak barne hartzen dituzten gizarte zibileko erakundeen plataforma independente edo sare bat dago.
- j. Kultura-arloko GKEak, gremio- edo sindikatu-elkarteak eta bizitza kulturean ekarpenak egiten dituzten gizarte zibileko agenteak indartzeko neurriak daude (gaitze-programak).
- k. Tokiko, eskualdeko eta nazioko gobernuak politika kulturean erantzukizunak partekatzeko edo elkarlanean aritzeko esparru iraunkorrak daude.

## Kulturaren gobernantza



# NOLA ERABILI DOKUMENTU HAU?

## Tokian tokiko aplikazioa

“Kultura 21: Ekintzak” dokumentua tokiko gobernu guztiek erabil dezakete, nahierara.

“Kultura 21: Ekintzak” dokumentuaren helburua da tokiko gobernu osoarentzako erabilgarria izatea (hau da, ez kultura sailetarako bakarrik).Gure asmoa izan da dokumentu praktiko eta erabilerraz batean herritarren, kulturaren eta garapen iraunkorraren arteko loturaz dakigun guztia laburbiltzea. Azaleratzen ari den arlo bat da, eta oraindik ez dago finkatua, baina ezinbestekoa da gizateriaren XXI. mendeko erronkei erantzuteko.Eta tokiko gobernuak funtsezko agenteak dira.

Dokumentu honek alkate eta gobernuburuei tokiko garapenaren alderdi kulturala sendotzen laguntzea espero dugu, baita funtzionarioei garapen iraunkorraren faktore kulturalak aintzat hartzen ere.

Halaber, dokumentu hau kulturaren, herritarren eta garapen iraunkorraren alorretan jarduten duten hiri-agente guztiek erabil ahal dezaten nahi dugu.


Dokumentu hau tokian-tokian aplikatzeko kontuan hartu behar da hainbat gobernu-maila eta eskumen publikoak banatzeko hainbat eredu daudela.Ekintzak zehazterakoan zenbait erantzukizun mugatzen saiatu gara.Hala, ekintza askotan tokiko gobernuak aipatu ditugu, zenbaitetan gizarte zibileko agenteak, eta beste batzuetan agente pribatuak. Azkenik, ekintza batzuk oro har deskribatu ditugu, subjektuak mugatu gabe, iritzi diogulako kasu horietan erantzukizunak hainbat agentek partekatu ditzaketela.

## Autoebaluazioa

“Konpromisoak” buruzko atalak lortu behar du interesa duten tokiko gobernuek haien testuinguruaren autoebaluazioa egin ahal izatea, batik bat abian dituzten politika eta programena.Autoebaluazioaren helburua da herritarren, kulturaren eta garapen iraunkorraren arteko loturan lan egiten duten hiriko agenteen ezaupideak, konektibitatea eta ahalmen operatiboa areagotzea (profesionalak diren zein profesionalak ez diren agenteena).Autoebaluazio-esparru hau tokiko eztabaidetan erabilgarria izan dadin espero dugu.

Tokiko gobernuei haien hirietan aitzindari izan daitezen eta esparru hori aplika dezaten adore eman nahi diegu; horretarako, prozesu ireki eta partizipatiboak antolatu behar dituzte, praktikara bideratuak. Autoebaluazioaren oinarriak dira “Konpromisoak”, konpromisoen bederatzi atal tematikoak eta atal horiei dagozkien ekintzak.Autoebaluazioan parte hartzen dutenek ekintza zenbateraino bete den balioetsi beharko dute: puntuak jarri eta iritziak eman beharko dituzte.Autoebaluazioa egin ondoren, tokiko gobernuek planteatutako gaiak “izar” moduko grafiko batean irudikatu ahal izango dituzte (ikusita infra), urte zehatz bateko indarrak eta ahuleziak balioeste aldera.Era horretan, urte arteko alderaketak egin (hiri berean) eta jasotako eskarmentu eta ezaupideak beste hiri batzuekin trukatu ahal izango dituzte.

## POLITIKEN AUTOEBALUAZIOA: 1. HIRIA ETA BEHAKETEN BATEZBESTEKOAK



*Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuak* (HTGB) munduko erakundeko Kultura Batzordeak lanerako dokumentu bat emango die interesa duten hiriei; dokumentu horretan autoebaluazioa egiteko aholkuak jasoko ditu: puntuazioa, adierazleak eta azalpenak.

Dokumentu hori berria denez, HTGBko Kultura Batzordeak, gida hori denbora batean erabili ondoren, kritikak, iradokizunak eta oharrak bilduko ditu, etengabe moldatzen joateko.

### Nazioarteko sare-lana

Dokumentu honen asmoa da HTGBko printzipio eta balioekin bat egitea eta, hala, hirien arteko lankidetzaz-inguruneak biziagotzea, munduko eskualde desberdinetako tokiko gobernuen arteko garapenerako lankidetzaz barne.

HTGBko Kultura Batzordeak sare-lana egitea proposatuko die interesa duten hiriei; lan horren arlo bat tokiko aplikazio izango da, eta beste arlo bat nazioarteko trukea. Biek ala biek kulturaren, herritarren, erakundeen, gizarte zibilaren eta garapen iraunkorraren arteko tokian tokiko loturaren zeregina hobetzen lagundu behar dute.

Sare-lanaren oinarriak hauek izango dira: autoebaluaziorako laguntza teknikoa, bikoen arteko ikaskuntza bidezko trukeak (peer-learning), jardunbide egokiak idaztea eta gai zehatz batean aitzindari dien hiriak antzematea.

“Kultura 21: Ekintzak” dokumentuaren xedeak dira, batetik, mundu osoko tokiko gobernuek esperientziak truka ditzaten sustatzea; eta bestetik, tokiko gobernu horiek nazioarteko praktika-erkidego moduan estu-estu elkarlanean aritzea.

HTGBko Kultura Batzordeak Kultura Biltzarra antolatuko du bi urtez behin, agenteak lotzeko, trukeak sustatzeko, agenda eguneratzeko eta sare-lanaren garapenaren berri emateko.

### Nazio Batuen post-2015 Garapen Agenda

Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapen Agenda unibertsal bat onartu du 2015eko irailean. Agenda horrek Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) izango ditu oinarri eta balioko du mundu osoko herrialdeetako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko, herrialde horien errealitatea eta garapen-maila direnak direlakoak. Agendak, gainera, mundu osoan garapena berdin ulertzea sustatu beharko du. GIHak, beraz, unibertsalak, eraldatzaileak eta handinahitsuak izan beharko dute. Post-2015 GIHetan ez da egongo gai kulturaleri buruzko helburu espezifikoa bat (zoritarrez), baina litekeena da GIHen xede eta adierazle batzuk kultura-arloko gai eta prozesuak esplizituki aipatzea. Horrek eragin handia izango luke kulturak mundializazioan duen zereginean eta tokiko politika kulturaletan.

GIHak aintzat hartuta, NBE-Habitat agentzia esparru berri bat prestatzen ari da hiritartzea iraunkorra izatea ziurtatuko duten politika eta programak zehazteko. Esparru horren berri Habitat III biltzarrean emango dute, Quitoan, 2016ko urrian.

Gure iritziz, “Kultura 21: Ekintzak” dokumentuak kulturaren, herritarren eta garapen iraunkorraren arteko loturaren osotasuna hobeto ulertzen laguntzen du. Horregatik, agente guztiak bultzatzen ditugu GIHak eta Habitat III biltzarreko emaitzak tokian-tokian kokatzeko dokumentu gisa erabiltzera.

### Gobernu nazionalak

Gure iritziz, dokumentu hau erabil daiteke garapen-plan nazionalak, hiri-politikei buruzko plan nazionalak eta tokiko eta eskualdeko gobernuen laguntza-programak egiteko. Plan horiek tokiko gobernuekin estu-estu elkarlanean arituz egin behar dira, eta, gainera, faktore kulturalak barne hartu behar dituzte, baldin eta demokrazia eta pertsonen ahalduntzea sustatzen lagundu nahi badute.

# DOKUMENTU HAU

Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuetako (HTGB) munduko elkarteko Kultura Batzordea hiri, erakunde eta sareen munduko mailako plataforma bat da, sortu dena kulturak garapen iraunkorrean duen betekizunari buruz elkarrengandik ikasteko, lankidetzan aritzeko eta horri buruzko programak eta politikak sustatzeko. 2012-2015 urteen artean, HTGBren Kultura Batzordeko buru Lille-Métropoleko ordezkaria da, Buenos Aires, Montreal eta Mexikoko ordezkariekin batera; buruorde izatea, Angers, Bartzelona eta Milan hiriei dagokie. HTGBko Kultura Batzordean berdintasunaren aldeko mundu osoko hiriek parte har dezakete.

“Kultura 21: Ekintzak” agiria HTGBren Kultura Batzordeak idatzi du 2013ko ekainetik 2015eko martxora bitartean. Batzordeak kontinente guztietako kideak, bazkideak eta adituak inplikatu ditu prozesu honetan.

“Kultura 21: Ekintzak” agiriaren prestaketa HTGBren kide exekutiboek onartu zuten Lyonen, 2013ko ekainean. Agiria prestatzeko lanak 2013ko ekainean bertan hasi ziren, HTGBk Lille-Metropolen egindako kultura batzordearen 10. biltzarrean, eta gero, “Kultura, hiriak, etorkizuna” [1. Edizioa] mintegian jarraitu zuten, 2013ko irailean, Buenos Airesen, eta 2013ko urrian, HTGBren Munduko Biltzarrean, Rabaten.

Kulturaren 21 Agendari, HTGBren kultura batzordeari eta “Kultura 21: Ekintzak” agiriko edukiarri buruzko sareko galdesorta martxoan hasi zen eta emaitzak urte bereko uztailean argitaratu ziren.

HTGBren kultura batzordeak analisi-artikuluak egiteko enkargua egin zien zenbait hiri eta adituri. Artikulu horiek 2014ko ekainean argitaratu ziren.

2013ko urritik 2014ko azarora bitartean, “Kultura 21: Ekintzak” agiriko edukiei buruzko eztabaidarako eta zabalkunderako mintegiak egin ziren Bruselan (Iraunkortasun kulturala ikertuz” sare europarrak antolatuta), Novi Sad-en (Voivodina, Serbiako gobernu erreionalak antolatuta) Txileko Santiagon IFACCA – FICAAC-en Arteei eta Kuturari buruzko mundu mailako biltzarra), Dakarren (tokiko gobernuak antolatuta), Alman (“les Arts et la Ville” sareak antolatuta), Lyonen (bertako gobernuak eta European Lab-ek antolatuta), Milanen (bertako gobernuak antolatuta Forum Città-Mondoren markoan), Hildesheimen (Politika Kulturelei buruzko Ikerketaren Munduko Biltzarra, ICCPR-k antolatuta), Montrealean (bertako gobernuak antolatuta), Newcastleen (Culture Action Europe sare europarrak antolatuta), Bilbon (bertako gobernuak antolatuta), Mexikoko Hirian (bertako gobernuak antolatuta, “HTGB-Mexikoko Hiria – Kultura 21” nazioarteko sari-banaketako ekitaldien barruan, Túnezen (Kultura Ministerioak eta Unescoren Batzorde Alemaniarrak antolatuta) eta Haikoun (HTGBren Munduko Kontseiluaren markoan).

Era berean, 2014ko ekainetik azarora bitartean, “Kultura 21: Ekintzak”eko hiri pilotuetan toki mailako eztabaidak antolatu zituzten “Kultura 21: Ekintzak” agiriko edukiei eta aurrera begirako inplementazioari buruz, hain zuzen ere, Belo Horizonten, Bogotan, Concepción-en, Gabrovon, Jejun, Mexikoko Hirian, Talcan eta Vaudreuil-Dorionen.

“Kultura 21: Ekintzak” agiriko azken zirriborroa 2014ko urriaren 1ean eta 2ean prestatu zen Buenos Airesen, “Kultura, hiriak, etorkizuna” [2. Edizioa] mintegi irekian eta HTGBren kultura batzordearen 11. bilera ofizialean.

“Kultura 21: Ekintzak” agiria 2015eko martxoaren 19an onartu zuen HTGBren kultura batzordeak, HTGBren “Kultura Gailurra: Kultura eta hiri iraunkorrak” goi-bileraren barruan.

HTGBren kultura batzordeak esker ona adierazi nahi die prozesu honetan parte hartu duten pertsona guztiei.



# HARREMANETARAKO

## HTGBko Kultura Batzordea

**HTGB - Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuetako**

Carrer Avinyó, 15

08002 Barcelona

Email [info@agenda21culture.net](mailto:info@agenda21culture.net)

Web [www.agenda21culture.net](http://www.agenda21culture.net)

Twitter [@agenda21culture](https://twitter.com/agenda21culture)

